



Datuak babesteko politika eta tratamendu-jardueren erregistroa
(www.beaz.bizkaia.eus -en argitaratzeko)

Datuak babesteko politika eta tratamendu-jardueren erregistroa

Datuak babesteko politika honen bidez ematen den informazio guztia aplikagarri zaio gurekin kontaktatzen edo gure zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonen datu pertsonalez BEAZ SAU erakundearen egiten dugun erabilerari.

Gainera, merkataritza foru-sozietatea garez eta betetzeko 30. artikuluan xedatzen duena 2016/679 (EB) Erregelamenduak (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra; aurrerantzean, DBEO) eta 31. artikuluan xedatzen duena 3/2018 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoak (aurrerantzean, DBEDBLO), dokumentu honekin argitara ematen dugu gure tratamendu-jardueren erregistroa, non informazio zehatza aurkituko duzun datu pertsonalez egiten dugun tratamendu bakoitzari buruz.

Datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa

1. Nor da zure datuen tratamenduaren arduraduna?

Zure datuen tratamenduaren arduraduna BEAZ SAU merkataritza sozietatea da, Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailari atxikia. BEAZ SAU erakundearen helburua jarduera ekonomikoa handitzen eta enplegua sortzen laguntzea da, enpresa berritzaileak sortzen lagunduz eta lehendik dauden enpresetan enpresa-proiektu berritzaileak garatuz, haien hazkundera indartzeko: produktu eta zerbitzu berriak, merkatu berriak, berrikuntza eta nazioartekotzea.

2. Nor da datuak babesteko ordezkaria?

Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Ataleko buruak betetzen ditu datuak babesteko ordezkariaren eginkizunak eta kargua, eta zuzenean dago atxikita Modernizazio, Gobernamentu On Gardentasunerako Kabineteari. Gobernu Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 15eko Erabakiaren bidez onartu zen Bizkaiko Foru Aldundiko eta sektore publikoko Foru Erakundeetako datuak babesteko ordezkariaren figura sortu, izendatu eta arautzea. Izendapen hori argitara eman zen 2018ko maiatzaren 24ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (99. zk.) eta ofizialki jakinarazi zitzaion Datuak Babesteko Euskal Bulegoari.

Datuak babesteko ordezkariarekin harremanetan jartzeko, idatzi Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atalera, posta-helbide honetara: Kale Nagusia, 2, 6.a - 48001 Bilbo.

3. Zeintzuk dira datuak ematean dagozkizun eskubideak?

Datuen babesari buruzko araudiak zenbait eskubide ematen dizkie interesdunei beren datu pertsonalei dagokienez, berehala aditzera emango dizugunez. Eskubide horiek zuzenean egikaritu daitezke, edo legezko edo borondatezko ordezkari baten bidez, eta dohainik.

Zure eskubideak egikaritzeko, jar zaitez harremanetan BEAZ SAU erakundearekin, idatzizko jakinarazpen bat bidaliz helbide honetara, NANaren edo identifikazio-agiri analogo baten fotokopiarekin batera:

Sabino Arana kalea 8,

48013 Bilbo

Zure eskaera jaso ondoren, ebazpen bat emango dugu. Ebazpenarekin ados ez bazaude, aldez aurreko erreklamazioa egin ahal izango duzu datuak babesteko ordezkariaren aurrean (Bizkaiko Foru Aldundia, Kale Nagusia, 2, 6.a – 48001 Bilbo), eta hark bere ebazpena izapidetuko du BEAZ SAU erakundearen barruan, edo Datuak Babesteko Euskal Bulegoan (www.avpd.euskadi.eus).

Datuen titularrek eskubide hauek dituzte:

- **Datuetara irispidea izateko eskubidea:** datu pertsonalak ea tratatzen diren eta tratamendu horri buruzko informazio osoa jakiteko eskubidea. Esate baterako: datu pertsonalak, kategoriak, helburuak, hartzaileak, datuak gordetzeko epea, jatorria, transferentziak eta komunikazioak.
- **Datuak zuzentzeko eskubidea:** datu pertsonal okerrak zuzentzeko eta datu osatugabeak osatzeko ahalmena ematen du.
- **Datuak ezabatzeko eskubidea:** datu pertsonalak ezabatzeko ahalmena ematen du kasu hauetan:
 - Datuak legez kontra tratatzeagatik.
 - Tratamendua edo bilketa eragin zuen helburua desagertzeagatik.
 - Adostasuna baliogabetzeagatik (adostasuna baldin bada datuen tratamendua legitimatzen duen oinarri juridikoa).
 - Tratamenduari aurka egiteagatik.
- **Tratamenduari aurka egiteko eskubidea:** zure datu pertsonalen tratamenduari aurka egin ahal diozu, baldin eta botere publikoen erabilera edo tratamenduaren arduradunaren interes legitimoa bada haren legitimazio-oinarria.
- **Tratamendua mugatzeko eskubidea:** datu pertsonalen tratamendua mugatzea, bi aldaeratan: datuen tratamendua eten eta datuak gorde:
 - Tratamendua eteteko eskatzen da:
 - Datu pertsonalen zehaztasuna aurkaratzen denean, zehaztasuna egiaztatzeke epearen barruan.
 - Tratamenduari aurka egiten zaionean, arrazoi pertsonalak azalduz, aldi berean egiaztatzen delarik arduradunak interes publikoaren edo botere publikoen izenean egindako misioan legitimatuta tratatzen dituela zure datuak, eta erabakitzen denean arduradunaren tratamendu hori gailentzen dela.
 - Datuak gordetzeko eskatzen da:
 - Tratamendua legez kontrakoa denean eta erabilera mugatzea eskatzen denean, eta ez ezabatzea.
 - Pertsonak erreklamazioak egiteko edo defendatzeko datuak behar dituztenean, baina aldi berean arduradunak jadanik behar ez dituztenean datu horiek tratamenduaren helburuetarako.
- **Banakako erabaki automatizatuen helburu ez izateko eskubidea:** eskubide honek bermatzen du zure gainean ez dela erabakirik hartuko datu pertsonalen tratamendu hutsean oinarrituta (profilak egitea barne), baldin eta tratamenduak ondorio juridikoak baditu pertsonarengan. Hala ere, eskubidea ez da aplikatzen kasu hauetan:

- o Beharrezkoa bada interesdunaren eta tratamendu-arduradunaren artean kontratu bat egiteko edo exekutatzeko.
- o Tratamendua adostasunak legitimatuta badago.

4. Zein kasutan komunikatuko ditugu zure datuak?

Ez dizkiegu zure datuak hirugarrenei inola ere komunikatuko, zuri alde zuretik jakinarazi gabe eta behar den legitimazio-oinarria ez dugularik.

Batzuetan, zerbitzu jakin batzuk ematen dizkiguten enpresak kontratatzen ditugu, eta datu pertsonaletarako irispidea behar izaten dute horretarako. Enpresa horiekin kontratu batzuk sinatzen ditugu tratamenduaren eragile izan daitezten: kontratuok DBEOren eta DBEDBLOren xedapenak betetzen dituzte. Haien bidez ziurtatzen dugu enpresa horiek kontratatutako zerbitzua emateko soilik tratatzen dituztela erabilgarri dituzten datuak, ez dituztela inoiz erabiltzen baimendu ez ditugun helburuetarako eta ez dizkietela datu horiek hirugarren enpresa eta/edo administrazioei lagako. Gainera, eskatzen diegu segurtasun-neurriak ezar ditzatela datu pertsonalen konfidentzialtasuna eta osotasuna bermatzeko. Datuen babesari buruzko indarreko xedapenak betetzen dituztela bermatzen duten enpresa eta erakundeak baino ez ditugu kontratatzen.

Kasu bakoitzean jakinaraziko dizugunez, datuak administrazio publikoei lagatzeko lege-betebeharra dugu egoera jakin batzuetan.

Kontrakoa adierazi ezean, ez dugu datuen nazioarteko transferentziarik egingo.

5. Zer segurtasun-neurri aplikatzen ditugu datuen tratamenduan?

Ezarritako segurtasun-neurriak bat datoz maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuaren II. eranskinean ezarritakoekin (segurtasun-neurriak); dekretu horren bidez, Administrazio Elektronikoaren esparruan Segurtasunerako Eskema Nazionala arautzen da. Era berean, segurtasun-neurri hauek aplikatzen ditugu:

- Interesdunari tratamenduaren xehetasunak jakinarazten zaizkio, datuak babesteko klausula pertsonalizatuen bidez;
- Interesdunari bere eskubideak jakinarazten zaizkio, datuak babesteko klausula pertsonalizatuen bidez;
- Tratamenduaren arduradunak baimendutako langileek garraiatzen dituzte euskarriak enpresaren barruan eta kanpoan;
- Baimenduta ez dauden pertsonak ezin izango dituzte datuak eskuratu eskuzko tratamenduan (dokumentuak);
- Tratamendu digitalean (pantailetan) baimenik ez duten pertsonak ezin dituzte datuak ikusi;
- Dokumentazioa segurtasun-neurriak dituen altzari edo sail batean biltegitratzen da;
- Dokumentuak suntsitzeko protokolo bat dago;
- Euskarri digitalak suntsitzeko protokolo bat dago;
- Identifikatzeko eta autentifikatzeko prozedura bat dago.

Tratamendu-jardueren erregistroa tratamenduaren arduradun gisa, eta informazio gehigarria

Atal honetan, informazio zehatza jasotzen dugu BEAZ SAU erakundearen egiten dugun tratamendu-jardueraren bakoitzari buruz.

1. Bezeroen kudeaketa

1.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Erakundearen bezeroen administrazio-, zerga- eta kontabilitate-kudeaketa egiteko tratatzen ditugu zure datuak, baita lehen harremanak kudeatzeko eta mantentzeko, lankidetzan proiektuetan diru-laguntzen espedienteak aztertzeko eta haien jarraipena egiteko, eta ekitaldietan parte hartzeko eta zerbitzuak emateko ere.

1.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Bildu ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator litezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboraz gordeko ditugu.

1.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak kontratu-tresna juridikoak garatzeko (DBEOren 6.1.b. artikulua) eta BEAZ SAU erakundearen aplikatu beharreko legezko betebeharrak betetzeko (DBEOren 6.1.c artikulua) tratatzen ditugu.

Hona datuen tratamendua legitimatzen duten legeak:

- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa;
- 1514/2007 Errege Dekretua, azaroaren 16koa, Kontabilitate Plan Orokorra onartzen duena;
- 2/2005 Foru Araua, martxoaren 10ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzkoa;
- 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, Aurrekontuei, tributuei eta kontratazio publikoari buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorren testu batekina onartzen duena.

Gainera, zure adostasunarekin, zure datu pertsonalak ekitaldiak kudeatzeko ere tratatzen ditugu. Edozein unetan ken dezakezu emandako adostasuna, BEAZ SAUrekin harremanetan jarrita.

1.4. Zer datu tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Bezeroen eta erabiltzaileen datuak tratatzen ditugu.

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikatzaileak: izen-abizenak, NAN/IFZ, helbidea, telefonoa;
- Ekonomikoak, finantzarioak eta aseguruak;
- Enplegua eta formakuntza;
- Ondasun eta zerbitzuen transakzioak.

1.5. Zein hartzailei jakinaraziko dizkiogu zure datuak?

Datuen komunikazio hauek egiten ditugu:

- Bankuak eta kutzak;
- Arlo honetan eskumena duten Administrazioak edo erakunde publikoak: Bizkaiko Foru Aldundia.

2. Kontratisten/azpikontratisten eta hornitzaileen kudeaketa

2.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Kontratutako eta azpikontratutako enpresekiko kudeaketa administratiboa, operatiboa eta legezko betebeharrak betetzeko egiteko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

2.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Bildu ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik erator litezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboraz gordeko ditugu.

2.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak kontratu-tresna juridikoak garatzeko (DBEOren 6.1.b. artikulua) eta BEAZ SAU erakundeari aplikatu beharreko legezko betebeharrak betetzeko (DBEOren 6.1.c artikulua) tratatzen ditugu.

Hona datuen tratamendua legitimatzen duten legeak:

- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa;
- 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa;
- Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra, uztailaren 4ko 16/2007 Legearen azken xedapenetako lehenengoari dagokionez;
- 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, Aurrekontuei, tributuei eta kontratazio publikoari buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorraren testu bategina onartzen duena.

2.4. Zer datu tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Kontratutako eta azpikontratutako enpresetako langileen datuak tratatzen ditugu.

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikatzaileak: izen-abizenak, NAN/IFZ;
- Gizarte Segurantzako/Mutualitateko zenbakia;
- Ezaugarri pertsonalak;
- Formakuntza/Enpleguaren xehetasuna.

2.5. Zein hartzailei jakinaraziko dizkiogu zure datuak?

Lehen aipatutako legeetako legezko betebeharrak betetzeko legitimaturik daude jarraian adierazten ditugun datu-komunikazioak.

Datuen komunikazio hauek egiten ditugu:

- Lan-istripu eta gaixotasun profesionalen mutualitateak;
- Administrazio eta erakunde publiko eskudunak;
- Kanpoko prebentzio zerbitzuak (osasunaren zaintza).

3. Giza baliabideen kudeaketa

3.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Gure langileen lan-harremanaren kudeaketa egiteko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

3.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Bildu ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator litezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboraz gordeko ditugu.

3.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak kontratu-tresna juridikoak garatzeko (DBEOren 6.1.b. artikulua) eta BEAZ SAU erakundeari aplikatu beharreko legezko betebeharrak betetzeko (DBEOren 6.1.c artikulua) tratatzen ditugu.

Hona datuen tratamendua legitimatzen duten legeak:

- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duena;
- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa;
- 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duena;
- 8/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testuategina onartzen duena;
- Bizkaiko Gardentasunari Buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru-Araua;
- 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa.

3.4. Zer datu tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Erakundeko enplegatuen datuak tratatzen ditugu.

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikatzaileak: izen-abizenak, NAN/IFZ, helbidea, telefonoa;
- Gizarte Segurantzako/Mutualitateko zenbakia;
- Ezaugarri pertsonalak;
- Ezaugarri sozialak;
- Ekonomikoak, finantzarioak eta aseguruak;
- Formakuntza/Enpleguaren xehetasuna;
- Datu-kategoria bereziak: osasuna, sindikatu-afiliazioa.

3.5. Zein hartzaileri jakinaraziko dizkiogu zure datuak?

Datuen komunikazio hauek egiten ditugu:

- Lan istripu eta gaixotasun profesionalen mutualitateak;
- Arlo horretan eskumena duen Administrazio Publikoa;
- Kanpoko prebentzio zerbitzuak (osasunaren zaintza);
- Finantza eta aurrezki erakundeak;
- Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak (BGAE);
- Prestakuntzako enpresak eta fundazioak.

4. *Administrazio Kontseiluaren kudeaketa*

4.1. *Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?*

Administrazio kudeaketa eta Kontseiluko kideei dagozkien legezko betebeharren kudeaketa egiteko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

4.2. *Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?*

Bildu ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator litezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboraz gordeko ditugu.

4.3. *Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?*

Zure datu pertsonalak BEAZ SAU erakundeari aplikatu beharreko legezko betebeharrak betetzeko (DBEOren 6.1.c artikulua) tratatzen ditugu.

Hona datuen tratamendua legitimatzen duten legeak:

- 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 2koa, Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartzen duena.

4.4. *Zer datu tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?*

Administrazio Kontseiluko kideen datuak tratatzen ditugu.

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikatzaileak: izen-abizenak, NAN/IFZ, helbidea, telefonoa.

4.5. *Zein hartzailei jakinaraziko dizkiogu zure datuak?*

Arlo honetan legezko betebeharrak betetzeko lehen aipatutako eskumena duten Administrazio Publikoei jakinaraziko zaizkie datuak.

5. *Hautaketa-prozesuen kudeaketa*

5.1. *Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?*

Hautagaiak aukeratzeko prozesuen kudeaketa egiteko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

5.2. *Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?*

Bildu ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator litezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboraz gordeko ditugu.

5.3. *Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?*

Interesdunaren adostasuna (DBEOren 6.1.a artikulua), datu pertsonalak kontratu-tresna juridikoak garatzeko (DBEOren 6.1.b. artikulua), eta BEAZ SAU erakundeari aplikatu beharreko legezko betebeharrak betetzeko (DBEOren 6.1.c artikulua) datuak tratatzeko legitimazioa da. Edozein unetan kendu ahal izango da emandako adostasuna, BEAZ SAU erakundearekin harremanetan jarrita.

Hona datuen tratamendua legitimatzen duten legeak:

- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena;
- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa;
- 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena;
- 1/2016 Foru Araua, otsailaren 17koa, Bizkaiko Gardentasunari buruzkoa.

5.4. Zer datu tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Hautaketa-prozesuetako hautagaien datuak tratatzen ditugu.

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikatzaileak: izen-abizenak, NAN/IFZ, helbidea, telefonoa;
- Ezaugarri pertsonalak;
- Ezaugarri sozialak;
- Formakuntza/Enpleguaren xehetasuna.

5.5. Zein hartzailei jakinaraziko dizkiogu zure datuak?

Bizkaiko Foru Aldundiari jakinaraziko zaizkio hautaketa-prozesuen kudeaketan erabilitako datuak.

6. Enpresen eraketa telematikoa

6.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Sozietate berrien kudeaketa telematikoa egiteko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

6.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Bildu ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator litezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboraz gordeko ditugu.

6.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Interesdunaren adostasuna (DBEOren 6.1.a artikulua) eta legezko betebeharrak betetzea (DBEOren 6.1.c artikulua) dira datu pertsonalak tratatzeko legitimazioa.

Hona datuen tratamendua legitimatzen duten legeak:

- 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 2koa, Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartzen duena;
- 2/2005 Foru Araua, martxoaren 10ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzkoa.

Edozein unetan kendu ahal izango da emandako adostasuna, BEAZ SAU erakundearekin harremanetan jarrita.

6.4. Zer datu tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Gure bezeroen eta erabiltzaileen datuak tratatzen ditugu.

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikatzaileak: izen-abizenak, NAN/IFZ, helbide postala/elektronikoa, telefonoa, sinadura;
- Gizarte Segurantzako/Mutualitateko zenbakia;
- Ezaugarri pertsonalak;
- Ezaugarri sozialak;
- Ekonomikoak, finantzarioak eta aseguruak.

6.5. Zein hartzailei jakinaraziko dizkiogu zure datuak?

Datu-komunikazio hauek egiten ditugu lehen aipatutako lege-betebeharrak betetzeko:

- Erregistro publikoak;
- Zerga administrazioa.

7. Hedapen-jarduerak

7.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Gure jarduerak eta gure bezeroen sustapen-jarduerak baliabide propioetan eta kanpoko baliabideetan zabaltzeko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

7.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Bildu ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator litezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboraz gordeko ditugu.

7.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Interesdunaren adostasuna (DBEOren 6.1.a artikulua) datuak tratatzeko legitimazioa da. Edozein unetan kendu ahal izango da emandako adostasuna, BEAZ SAU erakundearekin harremanetan jarrita.

7.4. Zer datu tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Interesdunen edo haien legezko ordezkarien datuak tratatzen ditugu.

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikatzaileak: izen-abizenak, helbide postala/elektronikoa, telefonoa;
- Irudiak eta grabazioak.

7.5. Zein hartzaileri jakinaraziko dizkiogu zure datuak?

Datuen komunikazio hauek egiten ditugu:

- Prentsa eta komunikabideak;
- Bizkaiko Foru Aldundia.

8. Kontaktuen kudeaketa

8.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

BEAZ SAU entitatearen erakunde-harremanen kudeaketa egiteko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

8.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Bildu ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator litezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboraz gordeko ditugu.

8.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak tratamenduaren arduradunak lortu nahi dituen interes legitimoak betetzeko tratatzen ditugu (DBEOren 6.1.f artikulua), Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 19.1 artikuluan xedatzen denaren arabera.

8.4. Zer datu tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Erakundeetako harremanetarako pertsonen datuak tratatzen ditugu.

Datu kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikatzaileak: izen-abizenak, helbide postala/elektronikoa, telefonoa.

8.5. Zein hartzaileri jakinaraziko dizkiogu zure datuak?

Ez da datu-komunikaziorik egiten.

9. Bideozaintza eta instalazioetara sartzeko kontrola

9.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

BEAZ SAU erakundeko instalazioen segurtasunaren kudeaketa egiteko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

9.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Bideozaintza-helburuekin jasotako datuak hilabetez gordeko dira, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 22.3 artikuluekin bat.

Sarbideak kontrolatzeko asmoz bildutako datuak bilketaren helburua betetzeko behar den denboran gordeko dira, bai eta helburu horren eta datuen tratamenduaren ondoriozko erantzukizunak zehazteko behar den denboran ere.

9.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoaren izenean egindako misio bat betetzeko (DBEOaren 6.1.e. artikulua) tratatzen ditugu.

Segurtasun Pribatuari buruzko apirilaren 4ko 5/2014 Legeak datuen tratamendua legitimatzen du.

9.4. Zer datu tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

BEAZ SAU erakundeko langileen eta erakundeko instalazioetara bisitan datozen pertsonen datuak tratatzen ditugu.

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikatzaileak: izen-abizenak, NAN/IFZ, sinadura;
- Irudia.

9.5. Zein hartzailei jakinaraziko dizkiogu zure datuak?

Estatuko segurtasun-indar eta -kidegoei jakinaraziko zaizkie zure datuak.

10. Espediente juridikoen kudeaketa

10.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Enpresak irekitako espediente juridikoen kudeaketa egiteko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

10.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Bildu ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik erator litezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboraz gordeko ditugu.

10.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Interesduna alderdi den kontratu bat gauzatzeko (DBEOren 6.1.b artikulua) tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

10.4. Zer datu tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Gure bezero, erabiltzaile, hornitzaile eta langileen datuak tratatzen ditugu.

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikatzaileak;
- Ezaugarri pertsonalak;
- Ezaugarri sozialak;
- Ekonomikoak, finantzarioak eta aseguruak.

10.5. Zein hartzaileri jakinaraziko dizkiogu zure datuak?

Datuen komunikazio hauek egiten ditugu:

- Erregistro publikoak;
- Epaitegiak eta epaimahaiak.

11. *Posta-sarrerak eta -irteerak*

11.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Dokumentuen sarreren eta irteeren erregistroa eta jarraipena egiteko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

11.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Bildu ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator litezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboraz gordeko ditugu.

11.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako legezko betebeharrak betetzeko (DBEOren 6.1.c artikulua) tratatzen ditugu.

11.4. Zer datu tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Interesdunen edo haiek legezko ordezkarien datuak tratatzen ditugu. BEAZ SAU erakundearen dokumentazioa aurkezten duten pertsonen datu identifikatzaileak eta harremanetarako datuak baino ez ditugu tratatzen.

11.5. Zein hartzaileri jakinaraziko dizkiogu zure datuak?

Ez da datu-komunikaziorik egiten.

12. *Compliance: datu pertsonalen tratamendua, salaketak eta/edo kontsultak aurkeztu eta izapidetzeagatik (ikerketa eta ebazpena)*

12.1. Zer helbururekin tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Compliance: Datu pertsonalen tratamendua salaketak eta/edo kontsultak aurkeztu eta izapidetzeagatik (ikerketa eta ebazpena). Bereziki, etika- eta jokabide-kodea, jazarpen-protokoloa edo indarrean dauden beste protokolo edo araudi batzuk ez betetzeari buruzkoak..

12.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Datuak bildu ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboraz gordeko ditugu zure datuak.

Eraitza negatiboa izan duten ikerketen kasuan eta salaketa ez onartzearen eta artxibatzearen kasuan, datu pertsonalak gordetzeko epea hiru hilabetekoa izango da.

12.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak lege-eginbeharrak betetzeko tratatzen ditugu (DBEOren 6.1.c. art.):

- 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoa;
- Eremu bakoitzean aplikatu beharreko araudi sektoriala.

12.4. Zein datu tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Tratatzen ditugun datuak langileengandik datoz, bai salatzaileengandik/kaltetuengandik, bai lekukoengandik eta salatutakoengandik.

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikagarriak eta harremanetarakoak;
- Inguruabar sozialak eta pertsonalak;
- Enpleguaren xehetasunak;
- Zigor eta arau-hauste penalei buruzkoak.

12.5. Zein hartzaileri komunikatuko dizkiogu zure datuak?

Hala badagokio, datuak honako hauei jakinarazi ahal izango zaizkie:

- Salaketa ikertzeko eta kudeatzeko eskumena duen organoari edo agintaritzari.
- Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoei.
- Organo judizialei.

13. BEAZ, S.A.U. erakundearen arau-hausteei eta ez-betetzei buruzko barneko informazio-sistema

13.1. Nor da zure datuen tratamenduaren arduraduna?

Zure datuen tratamenduaren arduraduna BEAZ, S.A.U. erakundearen Administrazio Kontseilua, Administrazio-Organo gisa sistema ezartzeko arduraduna izanda.

Funtzioen esleipena: Barneko informazio-sistemaren Organo arduraduna, kide anitzeko organo gisa Sistema kudeatzearen eta datuak babesteko eskubideen eskaerak kudeatu eta ebaztearen Arduraduna, eta Kontrol Agintaritzaren aurrean segurtasun-arrakalen edota salaketen aurrean alegazioak formulatu.

13.2. Zer helbururekin tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

BEAZ, S.A.U. erakundearen barneko informazio-sistema kudeatzeko, arau-hauste penal edo administratibo larri edo oso larriari edo, hala badagokio, beste arau-urraketen edo jokabide-kodeen ez betetzei buruzko informazioa komunikatzeko eta ikertzeko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

13.3. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Arau orokorra: datu pertsonalak 3 edo 6 hilabeteko epean tratatzea bideratutako prozeduraren konplexutasunaren arabera, prozedura izapidetzeko eta anonimizazioa edo blokeoaren aplikazioa, beharrezkoak diren eta, hala badagokio, aplikatzen diren segurtasun-neurri teknikoak, konfidentzialtasuna eta segurtasuna bermatzeko.

Hiru hilabeteko epean datuak ezabatzea ikerketa hasten ez bada.

Inola ere ezingo dira datuak gorde hamar urte baino gehiagoko epean.

13.4. Zein da datuak tratatzeko zilegitasun-oinarria?

Zure datu pertsonalak lege-eginbeharrak betetzeko tratatzen ditugu (DBEOren 6.1.c. art.):

- 2/2023 Legea, otsailaren 20koa, arau-urratzei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duena.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.
- 7/2021 Lege Organikoa, maiatzaren 26koa, arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatutako datu pertsonalak babesteari buruzkoa.

- Eremu bakoitzean aplikatu beharreko araudi sektoriala.

Kategoria bereziko datu pertsonalak: Tratamendua beharrezkoa bada funtsezko interes publiko berezi bati buruzko arrazoiak direla medio, Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidean oinarri hartuta, proportzionala izan behar du bilatzen den helburuarekiko; datu-babeserako eskubidearen muina errespetatu behar du, eta neurri egokiak eta espezifikoak ezarri behar ditu interesdunaren funtsezko interesak eta eskubideak babesteko (DBEOren 9.2.g. art.).

13.5. Zein datu tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Tratatzen ditugun datuak pertsona Informatzaileak, Informatzailea babesteko Agintaritza Independentek edo beste organo, agintari edo kanpoko pertsonen emandakoak dira.

Hala badagokio, datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Anonimotasuna (informazioa komunikatzeko eta kudeatzeko aukera, identifikazio pertsonalik gabe) edo, hala badagokio, identifikazio- eta harremanetarako-datuak, enpleguaren xehetasunak eta jakinarazitako beste datu pertsonal batzuk edo informatzailearen edota kaltetutako pertsonen ikerketaren ondoriozkoak.
- Izaera murriztailearekin eta hertsiki beharrezkoak diren kasuetan, datuen kategoria bereziak.

13.6. Zein hartzaileari komunikatuko dizkiogu zure datuak?

Hala badagokio, datuak honako hauei jakinarazi ahal izango zaizkie:

- Ministerio Fiskala edo Europako Fiskaltza, delituak komunikatzeko.
- Hirugarren pertsonak neurri zuzentzaileak hartzeko edo zehapen- edo zigor-prozedurak izapidetzeko, hala badagokio.
- Erakunde edo Agintaritza Independente eskuduna, beste erakunde behartu bati buruzko informaziorako.

Tratamendu Jardueren Erregistroa tratamenduaren eragile gisa, eta informazio gehigarria

Jarraian, DBEO 30.2. artikulua xedapenak betez, informazio zehatza jasotzen dugu BEAZ erakundeak datu pertsonalen tratamenduaren eragile den aldetik egiten duen tratamendu bakoitzari buruz.

1. Nagusi Intelligence Center zentroaren informazio buletineta harpidetza eta ekitaldietako izena ematea

1.1. Nor da tratamenduaren erakunde arduraduna?

Bizkaiko Foru Aldundiaren Aholdun nagusiaren kabinetearen koordinaziorako zuzendaritza nagusia (Kale Nagusia 25, 48009 Bilbo)

Bizkaiko Foru Aldundiaren Aholkularitza Juridikoaren, Informazioaren Segurtasunaren eta Datuen Babesaren Ataleko Burutzak (Kale Nagusia 2 6a- 48001 Bilbo) du Datuak Babesteko Ordezkararen rola.

1.2. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

DBEO 6.1.a) artikulua: datuak tratatzeko baimena ematea